



IRUDIA, EBALUAZIO-TRESNA

Irudiaren erabileraren abantailak ebaluazioan

Gai edo testu baten inguruan ikasleek ulertu dutena edo dakitena behatzeko, hainbat abantaila eskain ditzake irudiak.

- Lehenik eta behin, ikasleek ez dute hitzezko hizkuntza zertan erabili. Hala, ikasleen arteko hizkuntza-ezberdintasunak alde batera geratzen dira euren ezagutzak ebaluatzeko orduan. Izan ere, posible da ikasle batek hizkuntza zehatz bat menderatzen ez duenez ulertu duena adierazteko zailtasunak izatea, eta beraz, idatziz adierazteko eskatzen zaionean, edukiak ongi ulertu ez dituela interpretatzea irakasleak.
- Irudia sortzeko orduan, erabaki zehatzak hartu behar izaten dira, elementuen kokapena eta euren arteko loturak modu zuzenean adieraziz. Hala, ikasleek izan ditzaketan ulermen-akatsak zehaztasunez behatzeko baliagarri izan daiteke.

Beraz, ikasleen ezagutzak ebaluatzeko orduan marrazketa erabiltzeak hainbat abantaila izan ditzake, baina marrazki horiek ondo interpretatu eta ebaluatzea biziki garrantzitsua da marrazketa txertatzea erabakiz gero.

Kontuan izan beharrekoa

- Kontuan izan behar da beti ez dela ikasleen marrazketa gaitasuna ebaluatuko, eta hala jakinarazi behar zaie ikasleei.
- Posible da irudian hitzak nahiz esaldi sinpleak erabiltzea, kontua kontzeptuen arteko lotura zuzena eratu duten edo ez ikustea baita.
- Ondo zehaztu behar da marrazketaren helburua eta, ondorioz, ikasleak marrazkiaren bidez zer adierazi behar duen. Komenigarria izan daiteke irakasle izanik, zuk zeuk ere ikasleek entregatu beharreko marrazki bera egitea ikasleei hura egitea eskatu aurretik.



Ebaluazio-errubrika orokor batzuk:

	BAI	GUTXI GORA- BEHERA	EZ
Gogoz egin du lan.			
Irudiak arreta handiz eta kontzentrazio osoz egin ditu.			
Irudi bidez eskatutako jarduera burutu du.			
Irudiek eskatutako funtzioa betetzen dute; behaketa-jarduera bat gauzatzea, komunikatzea, norbere apunteak hartzea...			

Gaizki dagoena zer den adierazi gabe, saia zaitetz irudi bakoitzean jardueraren helburua lortzeko egin beharrekoak argi eta garbi adierazten.

Ekidin "Ze polita" bezalako iruzkinak. Horren ordez, hobe honako esaldiak erabiltzea:

- Oso behaketa-lan ona burutu duzu.
- Argi dago _____-(et)an erreparatu duzula.
- Argi dago _____ komunikatu nahi zenuela eta lortu duzu!
- Zure irudiak komunikatzeko gaitasun handia du.
- Oso langilea zara eta gaur ere gogor lan eginez lortu duzu zure irudien bidez _____ egitea.
- ...



Ebaluazio-errubrika orokor batzuk: Koebaluazioa/autoebaluazioa

	BAI	GUTXI GORA- BEHERA	EZ
Jarraitu beharreko urratsak jarraitu ditu/ditut.			
Aurkeztu beharreko irudiak eta lanak aurkeztu ditu/ditut.			
Irudiak ikusita argi dago saiatu dela/ Badakit saiatu naizela.			
Irudiek eskatutako funtzioa betetzen dute; behaketa-jarduera bat gauzatzea, komunikatzea, norbere apunteak hartzea...			

Idatzi zeure lana edo ikaskidearen lana hobetzeko hainbat proposamen:

